

- - **BEDERATZIURENA** - -

- - **UME JESUS'EN** - -

TERESATKU ZORUNDUNARI

AITA MARTIN
KARMELDAÑAK



Grijelmo-Alárgun eta Semien irafkolean
Arbolancha, 1. - Bilbao'n

1923

8

H-82331
F-87351


AV
39008

- - **BEDERATZIURENA** - -

- - **UME JESUS'EN** - -

TERESATXU ZORUNDUNARI

AITA MARTIN
KARMELDAÑAK



Grijelmo-Alaágun eta Semien iraróolean
Arbolancha, 1.—Bilbao'n
1923

Victoriae 10 Julii 1923.

Imprimi potest.

Fr. Athanasius a S. C. J.

IMPRIMATUR VICTORIAE

Nihil obstat.

Lic. Petrus de Anasagasti

Censor

Victoriae 18 Julii 1923.

Imprimatur

(L. S.)

✠ El Obispo de Vitoria,



Ume Jesus'en Teresatxu

(PINTU MARIANU J. GARCIA)

J. M. J.

«Neure zerua igaro gura dot ludikoai on egiten; neure eriotz-ondoren jausi eragingo dot lañosazko euri gozua».

(TERESATXU DEUNAREN ITZAK)

«Eztago Jesus'en besoetan etsunda egoitea baño gauza atsegintsuagorik».

(TERESATXU DEUNAREN ITZAK)

«¡Ah! ze maite dodan Andra - Marija, neure Amatxu kutuna!

Eleizgizon izan banintz, ¡zelango maitasunaz gorestuko neban bera!».

(TERESATXU DEUNAREN ITZAK)

«Deuntasunera igoteko ez dot ezagutzen bide bat baño: Maitasuna».

(TERESATXU DEUNAREN ITZAK)

«Asko loĩtuten dau, Jaunagan asko itxaroten dakianak».

(TERESATXU DEUNAREN ITZAK)



Ume Jesus'en Teresa Zorunduna

Emeretzigañen gizaldijaren azkenerantz zerutik jatsi zan ludira lora eder-eder bat.

Alguztidunaren eskuak apainduta deuntasuneko antzikuñ eta eredu aintzagañija da gauñ lora ori, eta «Jesus'en Loratxua» deituten jako alde guztietan. Ume Jesus'tar Teresa Karmeldañ Zorunduna da.

Jaio zan Alenzon'en (Prantzian) 1873'garango Urtañilaren 2'g. Bere guraso kistañ on-onak Luis-Martin eta Zelia-Guerin izan zirian.

Ugutzau (bateatu) eben iru izen onekaz: Marija, Prantziska, Teresa.

Iru urtedun zaneke añgi-añgi eukan adimena eta asi zan Jesus maitetuten gauza guztietan, berberak diñoanez: «Ez dautzot ezeñ ukatu Jainkoari iru urte nebazanetik».

Lau urte eukazala il jakon ama, ta andik laster gaixo andi batek imini eban erio-

tzako atietan; baña Ama Birgiñak iri-ba-
řeka ageřturik osatu eban bat-batez.

Gure-Jauna lenengoz arřtu ebanian, es-
katu eutzan Jesus arima garbijen Jaubia-
ri arřtu egijala bere betiko maitetzat. Ain
gazte ospatu nai ebazan bere gogozko es-
teguek zeruko Bakaldunagaz, ta ondo loř-
tu be.

Bederatzi urřte ebazanetik gura eban
sarřtu Lisieux'ko Karmelon, ango Lekaime
edo monja karmeldarřen arřtian. Legez ezin
sarřtu zeitikian ogei urřte bete arřte. baña
ibili ta ibili, Doipuru Leon XIII'g. be ber-
berak eskatute, jadetxi eban sarřtzia Li-
sieux'ko Lekaimetxian (komentuan) ama-
bost urřtedun ;Gure Teresatxuk eukan
poza!

Karmengo Ama samurřaren usotegi are-
tan iraun eban aingeru baten antzera, oge-
ta lau urřtedun il arřte, 1897'g. Iraila-
ren 30'g.

Aintxe deundu zan epe laburř onetan Te-
resa landara gaztetxua, olango laztasun
andi-andirik egin baga, baña beti Jesus'en
besoetan etsunda ume baten antzeko ba-
kuntasunaz, beti apala, zintzua, maitarija

ta erukioŕa. Bere gogua onoimen guztijen lorategi txukuna zan.

Iĭ baño auferatxuago esan eban: «Uste dot eldu jatala arima askori zerurako bidea irakasteko almena: Neure zerua igarro gura dot ludikoai ondo egiten. Neure eriotz ondoren jausi eragingo dot laŕosazko euri ugarija».

Egiz, uso zuri-eder au donokiratu dantetik, egunero bialduten dau ludira goieskaŕezko euri ongile ori, eunkada asko diriala Jaunak Teresatxuren bitaŕtez egiten dituan alatz eta mirari berarizkoak.

Doipuru Pio XI'g. onetsi ditu mirarijok, eta izentau dau Teresatxu Zorundunen artean 1923'g. Aprailaren 29'g. egunean, iĭ zanetik ogeta seigaŕen urtean, ta oindiño bixi diriala berbera il zan Lisieux'ko komentuan bere iru aizta saŕagoak, Marija, Paulina ta Zelina. ¡Ori mirarija! ¡Jau-naren eskua dabil emen!

Eldu gaitezau ba Teresatxu Zoriontsua-ren oñetara geure arimako eta gorputzeko osasunaren bile.

Markina-1923.

Egileak.



Ume Jesus'en Teresa Zorunduna'ri

BEDERATZIURENA

LENENGO EGUNA

Gurutze santuaren etc.

Jesukristo neure Jauna etc.

JAUNARI OTOITZA

Zeugan ziñesten dot, ene Jauna, baña egitade bako ziñesmena ila da-ta, neure ziñesmen motel-au, egipen onen bidez, biztu egidazu. Zeugan ditxarot-eta, zeure eñukiak zainduko nau. Neure biotz osoagaz maitatu nai zaitut, zeuk gu lenago maitatu gozuz-da.

¡Geure maitasunez ume egin ziñian, Jesus Gaizkale gurgañi ori! Zeure oñetara natoñ eskeñak emoten, geure egunetan aurkeztu dauzkuzulako zeru-bidean eredu jañraigañia Teresatxu Zorundunagan, onoi-men asko lilituten diriala beronen bitañtez ziñesdun biotzetan eta jadetsi zeure ontasuneti sorospen ugariak.

«Jesusen Loratxua» deitu dautzien Kar-
meldar Lekaime gaztetxu onen mirari go-
ragariak adoretuta natoftzu berau jarfen
zeure aurrean neure zaindari eta bitarte-
ko, loftu dagidan bederatzieren onetan
apalki eskatzen dautzudan laguntasuna.
Alan izan bedi.

EGUN GUZTIETARAKO EREGUA

¡Neure zaindari altsu eta maitagari, Te-
resatxu Zorundun ori! Atsegiñez gogaft-
tuten nago Doibatzak zure apaltasuna
ain arin zerutaren omenakaz agirian go-
restuta. Jainkoagazko zeure maitasun
gartsua ta neuri-bako ustamena zeugana-
ko ilkoften eraspen eta zaletasun gogotsu
biuftu da. Aonelan jatortzu neure biotza
be Bederatzieren goreslari ta otoizle au
eskindurik. Abegi onagaz, aften, arftu egi-
zuz nire goralpen eta eskariok, aitzu ba-
rik zeuk donokiratu orftuko esan zenduna:
«Ludikoai on egiten igaro nai dot neure
zerua; neure eriotz ondoren lorazko euria
jausi eragingo dot».

Aurkeztu egiozuz ba keratz usaintsuaz
urftzko ontzietan ain maite zendun Jaun
Alorodunari, zeu bitarte jatsi daiten gu-

gana erukizko euri ugaria, batez be Berderatziuren onetan opa dodan laguntasun urgazlea, zeure omengari, neure onerako eta Jaunaren aintzagarri izango bada orain eta beti. Amen.

LENENGO EGUNERAKO OTOITZA

¡Neure irakasle ta zaindari zerutar' Teresatxu maitagarri ori! Onoimen guztien biztoki eder-edeña bazan zure gogo zindoa bizitzako egun-sentitik, euron artean distiratsuen dakust ziñesmenaren zuzi gur-garia. Argibide onek zuzendu ebazan zure gogamen gustiak inoz koldartu barik, inunpe lodietan sari aurkitu baziñian be, Jaunak alantxe laketurik zeure zindotasuna ikusteko.

Algañeko onoimen guztien ero ta sustrai ziñesmena da-ta, Jaunaren gogoko izan gura daunak, biotzez ziñetsi ta bere siñeste ori agoz autoartu ta egitadez sendatu biar dau.

Jadetsi egidazu geitu daitela egunerik egunera nire ziñesmen au, begiratu dagiuedan ludiko jasokun guztiai betitasuneko argitera, izan begit zerubideko eragospenetan euspen adoretua, eta zuzen-

du begiz nire bizitzako egintza guztiak deuntasuneko bidetik, donokiko argitasun zoragarira eldu arte. Alan izan bedi.

Emen esaten dira iru Aita gure ta Agur Maria, Irubatasun deuna goralduteko Teresatxu Zorundunaren izenian.

Gero bakotxak eskatu bei Bederatziuren onetan loitu nai daben grazija.

EGUNEROKO AZKEN OTOITZA

¡Jaunaren otsein zintzo, Ume Jesus'en Teresa aintzagarí ori! Zeure onoimen bikañak gorengoak ziriala erabagi dau luidian Kristoren Ordezkarí Doipurubak. Giza guztiak-ganako zeure biotz ongile ta samur ori donokitik erbeste onetakoai ondo egiten atseginduten da, beste arazo edo pozgaririk ez bazeunko lez geure negar-malko garatzok legoitu eta gure samintasunok gozotu baño. Zeure deuntasunaren usain gozora, eta zinesdunai egunero bialtzen dautzezuezan eskar ugarien entzute andira, ospetsu dabil zure izena lurbira osuan, baru-barutik onetsiten dala zure ontasun emolea, zeure ezapera uste-tsu elduta loitu dabelako askok gaixo-al-

dijen osasuna, nekietan atsedena, nairgabetan kemen pozgaría.

Neu be zeure maitale gogotsuen artean pozañen autoñtuten naz da, gorestu gura zaitut Bederatziurñen onegaz. Goraldü eta bedeinkatzen dot zeure izenian geure onerako ainbeste eskubidez ornidu zaituan Irubatasun Deun-deuna; goraldü eta bedeinkatzen dot zeure izenian guztion Ama samur Andra Marija; zorionak damotzudaz donokian daukozun betiko atsedent oñegaitik, eta atsegiñez ikusten zaitut guztijek maitatu, txalotu eta gorestuta.

Entzun egidazuz orain eskari gogotsuok, eta eruan zeuk Jaunaren aurera; zeuk esaiozu nire alde berbatxu bat, ain begiko ta maitati zayakoz-da; jadetsi egidazuz oraingo eta betiko biar dodazan laguntasun eragikoñak, eurokaz Jainkoa obeto otseinduta, irabazi dagidan zoriontasun betikoña. Alan izan bedi.

BIGAREN EGUNA

Gurutze santuaren, ta lenengo eguneko otoitz bijek.

OTOITZA

¡Neure irakasle ta zerutar zaindari Teresatxu maitagarri ori! Zeugan ezagutzen dot zeure ziñesmen biziak soñtuta Jaunagan zeunkan itxaropen ustetsu laztanaren eredu goragarria, eta atsegiñez ikusten zaitut, zeure buruari txiki-txiki eretxi añen, deuntasun gorengora igoten emoi goitar oñen egoetan, etsuten ziñiala uste gozatsuaz Jainkoaren besoetan seme kutuna amaren besarteaz lez, edozein naigabek inguratu añen.

Txoriek egoak eta añaiñak ura baixen biazko dogu goitiko itxaropena; berau da guri bizitzako ez-bea eta zorigatxetan arnasa ta kemena emoten dauzkun añgi zerutara, gu erbeste aonetan nekezari, ereile, gudari eta salerosle gara-ta.

Loñtu egidazu ba Jaunagandik orpo sendoko itxaropen bat, auldu barik bizitzonetako naigabiakaz, josi dagidan neure biotza itxaropen gozuaren untziakaz ze-

ruko Aita samuñaren besoetan, eldu nadin gero betiko zoriontasunera. Alan izan bedi.

Iru Aita gure etc. Gero egunero esaten da lenengo egunian duguan azken otoitza.

IRUGAREN EGUNA

OTOITZA

¡Neure irakasle ta bitarteko zerutañ, Teresatxu zorundun ori! Jainko maitasunaren opari garbi-garbia izan ziñian bizitzako lenengo urtietatik, ilkoñena baño gotzonena geiago zirudian ongose bizi az. Atsegiñez ikusten zaitut Alguztidunaren begietan ain maitagari egin zaituan maitasun erukitsuari zeure biotz osua eskiñita. ¡Lotsatu egiten naz Jaun-maitasunian ain epel ikusten nazala, ez dakidala oindiño geure Aita zerukua benetan maite izatia zeñ dan!

Onoimen guztien artian nagusi ta bikañena maitasuna da-ta, zigoñaren bildura ta sarijaren itxaropena alde batera itxi-rik, geure Jauna, berez on ona, ta maitagari dalako, biotz-biotzez maitatu bial geunke. Jadetsi egidazu ba izan daitela neure biotz au Jaunagazko maitasunaren

abi kutuna ta bere atsegiñezko biztokia, bizi nadin beretzako bakarik zeure antzera eta alegindu naiten beste askok be maitatu dagian duiñoro, orain emen, gero donokian. Olantxe.

LAUGAREN EGUNA

OTOITZA

¡Ume Jesus'en Loratxu maitagarí ori! Pozen-pozaz ospatuten dot lateñi guztietan soñtu dan zeuganako itxaropen gogotsua, zure izena ezagutzeko zoriona daukien ziñisdun biotzetan. Jaunagazko maitasuna urko-lagun edo geideagazko onguria barik guzurézkua dala ondo jakiñik, zure poz andia geide guztiai ondo egitia zan, zerua bera be ludikoai laguntzen igarro nai dozula esanda.

Jaun-maitasunak suturik nekepean dagozanai laguntzeko dozun ardua erukitsu ori dala-ta, zeure zaletasunera daroazuz ziñisdun biotzak esker oneko egoetan. Loñtu egidazu neuri be geideagazko maitasun egiazkoa, eta gauñ jadetsi egidazu neure sendi guztiarentzako onespen edo bedeinkaziño ugari bat. Alan izan bedi.

BOSTGARĒN EGUNA

OTOITZA

¡Jaunaren jopu apal ta zintzo, Teresa zoriontsu ori! Umearotik jañaitu zendun Jesus'en epai onuratsu au: «Añotuten dan edozein, eratsia izango da; ta-bere gurez apaletsi daitena, goratua izango da». «Egiz diñotzuet, umetxuen antzeko egiten ezpazarie, zeruko atsegintegira ez zarie sañtuko; umetxu oñek lez bere burua apaletsi dagiana, donokian andiena izango da». Egia onek eta Jesus'en jañuibidia beti goguan irañtuta zeunkazala, poztuten ziñian ezespen eta iraiñ guztietan zeure gogoko janari gozuenian lez.

Apaltasun ori dala-ta, goratu dau Jaunak ainbestian zure izena, egizko otzanai agindutako sarija beterik. Aldendu nagizu neu be, eskatzen dautzut, añokerizko eden galgañitik, jantzi dagidan neure gogua zeruetara eruango naberen otzanen apaindura ederagaz. Alan izan bedi.

SEIGAREN EGUNA

OTOITZA

¡Emakume bioztun eta gogo andiko, Teresatxu aintzagañi ori! Kementsu aurkeztuten zara geure begietan zeure biotz andi orien sendotasunaz, iñoz kikildu barik, sañi aurkitu zenduzan gaiztasun, ziltzaldi, samintasun eta era guztietako eragospenetan, irabazi zendula ziñopa edo martiri deunen burestuna. Gogoz esaten zendun zuk: «Nire sendotasuna Jauna da; Jaunagan itxaroten dakienak, sendotasuna beragandik arñtu daroe; eta Jainkoa geure alde ezkerok ezeñ egin daike gure kaltez?» Aonelan iru urtedun ziñate-tatik eriotz aldiraiño ezeuntzon ukatu Jesus zeure Senañ gozuari eskatu eutzun opagairik.

Begira gauñ nire txikitasuna ta neure arerioak azpiratuteko daukodañ argaltasuna, eta loñtu egidazu Jaunagandik neure eginbiañ guztiok betetako sendotasuna irabazi dagidañ garailarijai emoten jakien azken burestuna. Alan izan bedi.

ZAZPIGAREN EGUNA

OTOITZA

¡Deuntasuneko irakasle bikaiñ Teresa-txu Karmeldar zoriontsu ori! Goi-argiz ezagutu zendun laster zein dan deuntasuneko bide ezezena eta inarkun mamintsuena, «Jaunaren opaz jasan dana eroapen adoretuagaz», zeure Ama Teresa biotz andikuaren antzera, pozañen, neketuta ikusten zinianian; Kurutz-bidea jaraitu zendun gogotsu eriotz aldiraiño; zinaopaguztien loñ eta nekeak igaro nai zenduzan, zigortua eta kurutzaldua izan Jesus Gaizkale gurgaría lez, katamotzen erpie-tan satitua Inaki deuna lez, boñeruen sumiñaz il Zezili, Ines eta Agate deunak lez, eskiñiteko aonelan zeure bizitziaren oparia maite-maite zendun Jesus arima garbijen Jaube maitagaríari.

Eraspen onen bidez irabazi dozuz zeure bekokia apainduten dautzuen ari-bikaiñ-edeñok. Jadetsi egidazu neuri be Jaunaren nayan idekotasun gogotsua, eta nekeak pozik igaroteko zaletasun bizi bat, bide onetatik loñtu dagidan zoriondunen aberiko atsedeen opagaría. Alan izan bedi.

ZORTZIGAREN EGUNA

OTOITZA

¡Neure zaindari zerutar, Teresatxu aintzagarri ori! Zeure onoimen goratuen artian dakust argiro Jaunaren besoetan etsunda, beragan zeunkan maitasun samur eta uste osua. Zeruko Aita amultsuagan dana itxaron-da, igaro zendun bizitz guztia ume baten antzeko bakuntasun samurrian. «Inoz be eztago ustekunde geiegi Jaungoikuagan; bere oñetara eldu bial gara elpide gentzatsura lez, ume txikitxua amaren besartera lez, samurtasun ustetsuagaz», zuk sari esaten zenduna da.

Eskatzen dautzut ba, neure bitarteko samur ori, loitu dagidazula Jaunagazko maitasun ustetsu au, urten nadin zauri gabe ludiko galzoretan ta eldu neure Aita zerukoaren ondora. Alan izan bedi.

BEDERATZIGAREN EGUNA

OTOITZA

¡Karmel mendiko lora usaintsu, Teresatxu omengarri ori! Zeure gogo garbian batu zendun apainki Jaunaren aintza zaindu-

teko Ama Teresa ta Elias igerla nagusia biztu ebazan sugaŕ bero-beroa Belguntzari (misiñolari) nai zendun izan gizaldiek amaitu arte, ardi asko ekaŕteko Jesusen artaldira, bere maitasunak orixe eskatzen entzule-ta, eta zeruan be eziñiala atsedenduko arazo oni ekin da ekin. Egiz, auŕera daroazu lan ori donokitik, egunero on egi-ten zabiz emengoai, laŕosazko euri eskaŕtsua jausi eragiten dozula arantzazko lekaro onetan.

Jaŕaitu ba, Teresatxu bedeinkatua, guri laguntzen; izan zakiguz belguntzari, irakaslari, ta benetako zaindari. Batez be ez aitzu nigaz zorionekoen kai gentzatsura igon arte, ilten nazala zeu lez Kurutz deunari laztanka, eta nire azkenengo beŕbak izan bediz zeuk esan zenduzan itz oroigari onexek: «Maite zaitut, ene Jau-na, maite zaitut». Alan izan bedi.

Ant. Veni, Sponsa...

Oaŕpena. Iruŕena baŕdin egin leike berderatziuŕen onetako lenengo iru egunetako otoitzak artute.

L. D. V. M.

Ant. Veni, Sponsa Christi, accipe coronam, quam tibi Dominus præparavit in æternum.

V. Elegit eam Deus, et præelegit eam.

R. In tabernaculo suo habitare facit eam

OREMUS

Domine, qui dixisti: Nisi efficiamini sicut parvuli, non intrabitis in regnum caelorum: da nobis, quaesumus; ita beatæ Teresiae Virginis in humilitate et simplicitate cordis vestigia sectari, ut præmia consequamur æterna: Qui vivis et regnas in sæcula sæculorum. Amen



AT

390